

FUNTZEKO ELKARTEAK

Itsuentzako zuzenduta dagoen enpresa eta produktu bat aterako dugunez, laguntzeko prest izango ditugun elkarteak itsuekin zerikusia duten elkarteak izango dira, bezeroekin lortzen dugun dirua ez dizkigu hainbeste irabaziak ekarriko, horregatik elkarte hauek gure produktuan mundu osoan zehar eramaten lagunduko digute, irabazi gehiago lortzeko. Hasteko ONCE (Organizacion Nacional de Ciegos Españoles) izango dugu elkarte printzipal bezala oso sartua dagoelako gizartean. Honetaz aparte beste hainbat elkarte izango ditugu ekonomikoki laguntzeko, adibidez; CIDEVI (Centro de atencion para la Inclusion de personas con Discapacidad Visual y sordociegas), CAICDV (Centro de Atencion Integra para Ciegos y Debiles Visuales), INCI (Instituto Nacional para Ciegos). Horrez gain, gure enpresa internazionala izateko hainbat elkarte izango ditugu honetarako; FAICA (Federacion Argentina de Instituciones de Ciegos y Ambliopes), UNCP (Union Nacional de Ciegos del Peru), UMC (Union Mundial de Ciegos) eta EBU (Union Europea de Ciegos) adibidez.

Bestalde, gure hornitzaileak Liftra, Arbelec eta Ingeteam izango dira. Enpresa hauek produktua egiten lagunduko digute, bakoitzak aspektu batean. Liftra ingeniari-taldea enpresa Dinamarkatar bat da, enpresa hau energia aeolikoetan espezializatuta dago, eta gure proiektua ikusterakoan energia ekologikoaren zerikusia zuenez, beste motatako produktu batean lan egin nahi zuten. Ingeteam izango da gure piezak eta materiala ekartzen eta hornitzen dituen enpresa. Ingeteam energia-bihurketan espezializatutako enpresa-taldea da. Batez ere potentzia-elektronikako, kontrol-elektronikako, motorretako, sorgailu elektrikoetako, urpeko ponpa eta motorretako eta ingeniari-taldea elektrikoko ekipoa garatzen ditu.

Orduan, beraiek eukiko dituzte behar ditugun material espezifikokoak eta beraiei esker eskeiniko dugu kalitate hobereko produktuak. Eta amaitzeko Arbelec, erdi-tentsioko eta behe-tentsioko koadro eta instalazio elektrikoak, ingeniari-taldea eta hornidura industrialetan espezializatutako enpresa bat da. Beraiek lagunduko digute instalazio elektriko osoa egiten, konektatzen dinamoia panel elektriko eta sentso-rete guztiekin.